

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2016ko abenduaren 26tik abenduaren 30erako astea

➤ INGURU MAKROA:


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ ASTE HONETAN MERKATUETAN

➤ GURE IKUSPEGIA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZA



Datuaren analisia


Kontsumitzailearen konfiantza duela 15 urteko mailarik altuenera igo zen abenduan. Lan merkatuaren egoerak hobera egingo duelako itxaropena, negozioak egiteko giro aproposa eta hauteskunderen osteko burtsa-merkatuen gorakada izan dira datu horren hobekuntzaren arrazoi nagusiak; izan ere, azaroko 109.4 puntuetatik 113.7ra pasa da, mailarik altuena 2001eko abuztutik. Modu bereizian, hobekuntzak begi-bistakoa izan ziren hurrengo sei hilabeteetako enplegu eta diru-sarreretan; seinale ona epe motzeko kontsumorako.

Adierazlearen azalpena

Kontsumitzailearen konfiantza kontsumitzailearen gastua aurreratzen duen adierazlea da. Kontsumitzaileei egindako inkesta batean jasotako datuetan oinarritzen da, enplegua, negozioaren egoera eta familiako diru-sarrera guztien buruzko galderak biltzen dituena.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: ABENDUKO ATARIKO KPIa ESPAINIAN



Datuaren analisisa

Abenduko atariko datuaren arabera, prezioak % 1,4 igo ziren Espainian (urte arteko datu bateratua), aurreko hilean baino % 0,99 gehiago eta merkatuaren aurreikuspena baino % 0,40 gehiago. Irailean hasitako goranzko joera, beraz, petrolioaren prezio baxuen testuinguruak eragindako hazkunderik gabeko 13 hilabeteren ostean, finkatu egin zen abenduan, petrolio gordinaren prezioek gora egin baitzuten LPEEko kideek eta petrolioaren beste zenbait ekoizlek ekoizpena murrizteko sinatu zuten akordioaren ondorioz. Atariko datu hori berrestekotan, tasarik altuena izango litzateke 2012tik, azken lau urteetako inflazio daturik onena, alegia.

Adierazlearen azalpena

KPIaren kalkulua Estatistika Institutu Nazionalak egiten du hilero. Espainiako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

INGURU MAKROA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: AZAROKO KPIa



Datuaren analisia

Bederatzigarren hilabetez jarraian, kontsumoko prezioak jaitsi egin dira Japonian, inflazioa neurtzeko erreferentziatzat hartzen den elikagaiak barne hartzen ez dituen KPIaren % 0,4ko jaitsierarekin. KPIa % 0,5 hazi zen, eta elikagaiak eta energia barne hartzen ez dituen KPIa, berriz, % 0,1. Prezioen bilakaera ahulak agerian utzi du beste behin Japoniako Bankua (BoJ) urrun dagoela inflazioa % 2 inguruan kokatzeko helburua lortzetik. Japoniako Banku Zentralak helburu hori betetzeko epea 2018az harago atzeratu zuen azaroan, Petrolio gordinaren merkatzeak prezioen ganean izan zuen beherazko presioaren ondorioz batez ere.

Adierazlearen azalpena

KPIa hilerok prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus
01/02	Espainia	Espainiako Markit fabrikazioaren PMIa	54.6
01/02	Italia	Italiako Markit/ADACI fabrikazioaren PMIa	52.3
01/02	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	53.5
01/02	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	55.5
01/02	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	54.9
01/03	Txina	Txinako Caixin fabrikazioaren PMIa	50.9
01/03	Frantzia	Urte arteko KPIa	% 0.8
01/03	Alemania	Langabezia-tasa	% 6.0
01/03	Erresuma Batua	Markit UK PMI Manufacturing SA	53.3
01/03	Alemania	Urte arteko KPIa	% 1.4
01/03	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	54.2
01/03	Estatu Batuak	ISM manufaktura-indizea	53.7
01/03	Estatu Batuak	Hileko gastua eraikuntzan	% 0.5
01/04	Japonia	PMI Nikkei fab Japonia	--
01/04	Txina	Westpac-MNI Kontsumitzailearen sentimendua	--
01/04	Frantzia	Kontsumitzailearen konfiantza	99
01/04	Espainia	Hileko langabezia-tasa	-44.1
01/04	Espainia	Markit PMI Composite Espainia	55.0
01/04	Italia	Markit/ADACI Italia Composite PMI	53.0
01/04	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	52.8
01/04	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	54.8
01/04	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	53.9
01/04	Eurogunea	Urte arteko azpiko KPIa	% 0.8
01/04	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
01/04	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
01/05	Japonia	PMI Nikkey composite Japonia	--
01/05	Txina	Txinako Composite PMI Caixin	--
01/05	Alemania	Markit PMI Alemaniako xehekako merkataritza	--
01/05	Eurogunea	Markit Eurogunea xehekako merkataritza PMI	--
01/05	Frantzia	Markit PMI Frantziako xehekako merkataritza	--
01/05	Eurogunea	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	-% 0.1
01/05	Estatu Batuak	ADP Enplegu aldaketa	175k
01/05	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	260k
01/05	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
01/05	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	56.7
01/06	Alemania	Urte arteko xehekako salmentak	% 1.2
01/06	Alemania	Urte asteko WDA fabriken aginduak	% 3.6
01/06	Frantzia	Balantza komertziala	-4800m
01/06	Eurogunea	Konfiantza ekonomikoa	106.8
01/06	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-5.3
01/06	Eurogunea	Urte arteko xehekako salmentak	% 1.9
01/06	Estatu Batuak	Balantza komertziala	-\$42.8b
01/06	Estatu Batuak	Langabezia tasa	% 4.7
01/06	Estatu Batuak	Fabrika-eskariak	-% 2.3
01/06	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	-% 4.6

ASTE HONETAN MERKATUETAN

BURTSAK

Urteko azken astean, negoziozioen kopuru urria izan da protagonista. Oso jardunaldi lasaiak izan dira, datu makro eta ustekabe gutxikoak. European finantza-sektorea izan da berriro protagonista, Monte dei Paschi banku italiarrarekin loturiko albisteekin. Aipatu sektorea, autoenarekin batera, zenbaki gorritan geratu zen. Oinarrizko baliabideena, berriz, % 3ko balio handitzea izan zuen urteko azken saioetan. Eurostoxx 50 indizeak irabazi xumeekin itxi zuen, urteko emaitza maila positiboan mantentzeko beste bederen. Hala ere, balantze mistoa izan zuen zenbait herrialdetako indizeetan. Espainia eta Italiak negatiboan amaitu zuten urtea. Ibex 35 indizea, bi astez tarte estuan gora eta behera ibili ostean, -% 0,17 jaitsi zen bost egun horietan, eta ez zuen lortu urtea balio positiboetan amaitzea. Burtza amerikarrek ere ez zuten gorabehera handirik bizi. Azken egun hauetan mugimendu txikiak izan badira ere, 2016. hasieran inork ez zuen espero ekitaldia % 10eko igoerekin amaituko zutenik, dagoeneko 8 urtez goranzko joerarekin eman duen merkatua izanik. Asiak ere negatiboan itxi zuen 52. astea, Nikkei indizeak izan ezik, irabazi xumeekin amaitu baitzuen urtea. Gorakorrek tonu positiboa izan zuten azken jardunaldietan.

ERRENTA FINKOA:

Aste lasaia zorraren merkatuan, eta mugimendu gutxi Europako zor publikoan. 10 urterako erreferentzia oinarrizko puntu (op) 1 jaitsi zen Alemanian (% 0,21eraino). Espainian, berriz, 1 op igo zen (% 1,38raino) eta, beraz, arrisku-saria 2 op igo zen. AEBetan, garai hauetan ohikoa izan ohi den bolumen txikiaren testuinguruaren barruan, mugimendua zertxobait handiagoa izan zen. Gorakada handien ostean, 10 urterako erreferentzia 9 op jaitsi zen (% 2,44raino), aurreko astean hasitako zuzenketarekin jarraituz. Egonkortasuna kreditu diferentzialetan.

DIBISAK/LEHENGAIK:

Gainerako merkatuetan bezalaxe, dibisen merkatuan Eguberrien eragina nabaritu da, eragiketa gutxi eta mugimendu xumeak izan baitira. Euroak bere balioa arinki handitu zuen dibisa nagusien aldean. Bestalde, petrolioaren prezioa % 1,89 igo zen, petrolio gordinaren inbentarioek ustekabean gora egin zuten arren. Inbertitzaileak zain daude; izan ere, urtariletik aurrera, LPEEko kide gehienak eta beste 11 ekoizle haien ekoizpena murrizten hasiko baitira, azaroaren amaieran izenpeturiko hitzarmenari jarraiki. Urrearen balioa % 1,62 igo zen.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa astean	% Ald 2016
MSCI WORLD (Local)	1.364,26	-0,74	6,77
IBEX 35	9.352,10	-0,17	-2,01
DJ EURO STOXX 50	3.290,52	0,51	0,70
DJ STOXX 50	3.010,55	0,41	-2,89
FTSE	7.142,83	1,06	14,43
S&P 500	2.238,83	-1,10	9,54
Dow Jones	19.762,60	-0,86	13,42
NASDAQ	5.383,12	-1,46	7,50
NIKKEI 225	19.114,37	-1,61	0,42
MSCI EMERGENTES (Lo	47.650,99	2,27	7,12
MEXBOL	45.642,90	1,04	6,20
BOVESPA	60.227,29	3,95	38,93
SHANGHAI	3.249,59	-0,21	-12,27
Rusia Rts Moscu	1.152,33	3,08	52,22

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa astean	Ald 2016
ALEMANIA 2 URTE	-0,77	0,02	-0,42
ESPAINIA 2 URTE	-0,28	-0,01	-0,28
AEB 2 URTE	1,19	-0,01	0,14
ALEMANIA 10 URTE	0,21	-0,01	-0,42
ESPAINIA 10 URTE	1,38	0,01	-0,39
AEB 10 URTE	2,44	-0,09	0,17
ALEMANIA 30 URTE	0,94	0,02	-0,54
ESPAINIA 30 URTE	2,62	0,04	-0,36
AEB 30 URTE	3,07	-0,05	0,05
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	72,04	1,86	-5,23
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	288,70	3,88	-25,92

Dibisak	Maila	% Aldaketa astean	% Ald 2016
Dolarra / Euroa	1,05	0,69	-3,10
Yena / Euroa	123,00	0,28	-5,88
Libera / Euroa	0,85	0,18	15,77

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa astean	2016ko % Ald
Petrolio (Brendt)	55,41	1,89	54,99
Urrea	1.152,27	1,62	8,56

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.